

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a / 524. zenbakia



SOS Sahara

Errefuxiatu sahararrendako janaria eta dirua batzeko kanpaina
hasi dute Udalak eta herriko hainbat taldek

IKASTAROA: ETXEKO ARDUREN BANAKETA/7 • MURUAMENDIARAZ: ASPE-REKIN KONTRATUA KOLOKAN/11

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22-behea. Bergara. Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde 8
BERGARA


ATREBENTZIAEZPADA/ Ze eskatzen jatzu hasi berri dogun urtiai? Eta badaukazu asmo berririk?



MARISA CORANTI
44 urte



EDURNE MANCISIDOR
53 urte



JOSE AGIRRE
77 urte



NEREA MUJIKA
19 urte



ARANTZA LINAZISORO
68 urte



SANTOS BOROBIA
63 urte

Osasuna neska, eta horrez aparte bakia. Horrek die neretako garrantzitsuenak. Eta bestela, ba, asmo berririk ez daukat. Erretziari laga dotsat eta oraingoz nahikua daukat horrekin.

Bakia, lana eta osasuna. Osasuna, gainera garrantzitsuen da. Bestela, asmo berririk ez daukat. Asmuak onak badauzkat, baina berririk ez. Gure edadian ze egingo dogu ba.

Bakia eskatzen dotsat nik. Besterik ez. Horixe da neretako garrantzitsuenak. Osasun pixka bat badaukogu, eta halaxe jarraitzea espero dot. Asmo berririk ez daukat.

Ez dakit ba ze esan. Osasuna bai, behizat. Eta bestela, ba, gutxienez oraingo moduan jarraitzea. Bestela asmo berririk ez daukat. Igoal aurrerago izango ditudut, baina orain ez.

Osasuna, bakia eta gauzak bihar dan moduan konpondu eta zuzentzia. Horrekin nahikua. Eta asmo berririk ez daukat. Nik asmo danak bukatuta daukat.

Lasaitasuna egon deilla. Eta osasuna be bai, hori barik gaizki jungo ga-eta. Baina neretako garrantzitsuenak momentu honetan da lasaitasuna eta bizitzeko bakia egon deilla.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EZINDUEN APARKALEKUA Iargarai kalean egokitu berri duten autobus geltokiaren bi ertzetan minusbaliatuendako aparkaleku bana dago. Halaxe ohartarazi gaitu aste honetan irakurle batek. Haren esanetan, baina, bietako baten gainean argazkian ikus daitekeen bezala, zaborrendako edukiontzia jarri dute. Zertarako, orduan, ezinduendako gune bereziak gorde? /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLA /10

KULTURA /12

Sahararrei laguntzen

Sahararrendako janari eta diru bilketa kampana hasi da. Udaletik solidaritatea eskatu dute.

Gabon Sariko finalak

Bergara KEko pilotariak maila bikaina azaldu zuten Gabon Sariko finaletan, abenduaren 28an.

Jarduneko lehiaketa

Sakelako Telefono Bidezko Amodiozko Mezuen Lehiaketa hasi da hilaren 15era arte luzatuko da.

ASTEKODATUA

2

GRADOKO TEMPERATURA MARTITZENEAN

Urtea berriarekin batera, hotza etorri da. Luis Mari Agirreren datuen arabera, 2 grado izan genituen martitzenean. Pronostikoek diotenez, tenperaturak behera egingo du datozen egunetan.

BESTEKEESANA

Orain baino lehen ere Bergarak pauso trinkoak eman ditu euskararen normalizazioaren bidean.

Duela hamar urte baino gehiago hitzarmenak egin genituen gazte elkarteekin, merkatariekin etab. Dena dela, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak batasuna emango dio orain arte egin den hizkuntza politikari, hau da, zatika egin den lanari, osotasuna. Udalaren aldetik ere planteamendu osokoagoa ekarriko du eta herriz gairiko ikuspegia ere bai, koordinazioa erraztu eta guk herri mailan gairitu ez ditugun oztupoak gairitzeko erraztasunak. (...) Oraingoz Planaren lehen zirriborroa egin da, eta, oraintxe, azken zirriborroa lantzen ari gara, batzuekin eta besteekin biltzen.

KOLDO PEREIRA / Kultura zinegotzia 'Euskararen Berripapera' /126. zenb.

BERAIEKDIÑO/ Maite Aristegi



Utopixak margotzen

Joan ziren gabonak. Argi diztiratsua gizarte honen iluntasun danak ezkutatu nahixan bezela, geu be erdi itsututa, fikziozkoa den errealdade baten igaroak. Hemen urte berrixa. Eta komunikabideetako etenbariko hizjarixuan itxaropenerako arrastoak topatzia zaila bada be, badira oindio ametsak egi bihurtzeko nahixan dabitzenak. Brasilgo Lula agintarixak emon dozku horren adibidia. Ez dakigu noraino ailegauko dan, neurri populista edo bide motzekua beharbada, baina gizarte baten 2/3a baino gehixao gosez dagoenean gerrako hegazkinetarako zan dirua janaritarako destinatzea pausu bat da, benetakoa. Gero, epe luzeagorako erreforma sakonagoak beharko dira, baina momentuan, gosez hiltzen dagoenari jaten emon.

Eta utopixak pintatzen has-tean, inguruak pizten diren seinale, programa horri kanpotik laguntzeko datozen ekimenak-Gure artean be, enplegua eta sol-

datak ezik, beste guztia gora doia-nez, eta beste neurri batean bada be, badauke gure gobernantiak nora begiratu. Bertan be aberatsen gehixangoan gero eta behartsu gehixao dago eta. Duinttasuna eta bizi nahixaren seinale baita Indiako Gobernuak hartutako erabakixa. Ez dITU onartuko Ameriketako Estatu Batuetatik bialduta-ko soja eta artoak, transjenikoak ez direla bermatzen ez dan bitartean. Euren kontsumorako debekau-ta dituduzten produk-tuak, inori bialdu. Majo. Hipokresixaz pozoindutako kargamentua. Gaur ase,

betirako gose. Jaten dabenei era-gin ahal dotzen kalteaz gain, euren uztak kutsatu eta betiko multinazionalen menpe geldit-zeko arriskua, herrialde horrek ez dabe eta transjenikoak ekoiz-teko teknolojixarik. Bai osteria eduki, miserixan daren beste askok bezela, danon laguntziaz, euren zerua justizia koloreko utopixaz margotzeko nahixa. Eta preminia.

Urte barri solidarixua den denoi!

"Indiak ez dITU onartuko AEBtik bialdutako soja eta artoak, transjenikoak ez direla bermatzen ez dan arte"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GIZARTEA/ Kanpainak bi helburu ditu: janaria batzea errefuxiatu sahararren kanpamentuetara bidaltzeko eta dirua jasotzea janari hori garraiatzeko

Sahararrei laguntzeko kanpainarekin bat egin dute Udalak eta herriko hainbat taldek

MONIKA BELASTEGI

Herri sahararra bizi izaten ari den une latzari aurre egiteko Gipuzkoa osoan abian jarritako kanpaina da. Hogeita hamabost udalerrri inguruk egin dute bat kanpainarekin, eta martitzena ezker Bergaran ere abian dago. Kanpainak urtarrilaren 25era arte iraungo du.

Bergarako Udalak ere bat egin du, beste hainbat udalek egin bezala, sahararren egoera larriari aurre egiteko Gipuzkoan abian jarri duten kanpainarekin. Kanpainaren leloa da *Karabana eta janari bilketa errefuxiatu Saharari kanpamentuetarako*, eta martitzenean aurkeztu zuten prentsaurrekoan. Udalez gain, herriko beste hainbat taldek ere bat egin eta kolaboratu dute kanpainarekin: San Martin Ikastetxeak, Aranzadi Ikastolak, Mariaren Lagundia Ikastolak, Bergarako gaztetxeak eta Komite Internazionalistek, hain justu.

Gallastegi alkateak prentsaurrekoan esan zuenez, "herri sahararra elikagai-krisia jasaten ari da, eta solidarioak izan behar dugu haiekin. Udalak solidaritatea adierazi nahi dio herri sahararri, eta horregatik egin dugu bat kanpainarekin". Bestalde, herritarrei ere "solidarioak izateko eta kanpainari erantzun ona" emateko eskatu die alkateak. Horrekin batera, kanpainaren nondik norakoak ere azaldu zituen, baita zein janari mota ematea komeni den eta lagatzeko guneak zein diren ere.

EZ DA KOMENI EDOZEIN JANARI MOTA EMATEA

Azpimarratu zuenez, bereziki, honako janaria lagatzea komeni da: lekaleak, zerealak, pastak, azukrea, olioia eta atuna oliotan. Gainera, janari horrek guztiak ondo batuta egon behar du.

Janari hori batzeko hainbat gune egongo dira herrian barrena: elkarte gastronomikoetan, komertzioetan edo Udaltzaingotan utz daiteke janaria.

Kanpainaren aurkezpen egunean, martitzenean, hasi zen eta urtarrilaren 25era arte iraungo du. Horren ondoren, janaria jaso eta Tindouf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu sahararren kanpamentuetara eramango dute.

DIRU BILKETA, BIGARREN HELBURUA

Janaria eramango duen karabana otsailean abiatuko da Tindouferantz. Eta hor kokatzen da kanpainaren bigarren helburua, diru bilketa, hain justu. Izan ere, Gipuzkoan barrena batutako janaria kanpamentuetara eramateko kamioiak erosteko eta, oro har, garraio gastutarako erabiliko dute.



Markos Gabilondo (KI), Kontxi Irizar, Victoriano Gallastegi, Mohamed Salem eta Juanjo Arrieta, kanpainaren aurkezpenean.

Dirulaguntzak jasotzeko bi kontu zabaldu dituztela adierazi zuen Gallastegi alkateak prentsaurrekoan: Euskadiko Kutxan (3035 0060 45 0600047469) eta Kutxan (2101 0200 44 0011305190).

ELIKAGAI-KRISIA, MAROKOK EGITEN DUEN PRESIOAREN ONDORIO
Prentsaurrekoan Mohamed Salem Fronte Polisarioko kidea ere izan zen. Sahararrak jasaten ari diren elikagai-krisiaren arrazoiak azaldu zituen hark. Haren esanetan, orain arte laguntza eskaini dieten herrialdeek txikitu egin dute laguntza hori, "Marokok egiten duen presioagatik. Marokok nahi du herri sahararra bere banderapeko autonomia izatea. Guk ez dugu hori onartzen, eta horren ondorioak jasaten ari gara". Bestalde, eskerrak eman zizkion Udalari eta herritarrei kanpainarekin bat egiteagatik.

zoiak azaldu zituen hark. Haren esanetan, orain arte laguntza eskaini dieten herrialdeek txikitu egin dute laguntza hori, "Marokok egiten duen presioagatik. Marokok nahi du herri sahararra bere banderapeko autonomia izatea. Guk ez dugu hori onartzen, eta horren ondorioak jasaten ari gara". Bestalde, eskerrak eman zizkion Udalari eta herritarrei kanpainarekin bat egiteagatik.

Bereziki, lekaleak, zerealak, pasta, azukrea, olioia eta atuna oliotan behar dira

Janaria jasoko dute: komertzioetan, herriko elkarte gastronomikoetan, eta Udaltzaingotan

Mohamed Salem Fronte Polisarioko ordezkariak eskertu egin du Bergaran jasotako laguntza

ELSA MANSO /SAHARAKO UMEA IZAN DUTE ETXEAN, UDAN

"Sahararrak oso abegitsuak dira eta baita umore onekoak ere"

Nolatan hartu zenuten ume saharar bat udarako?

Radio Euskadin entzun genuen deialdi bat ume sahararrak udan etxeetan hartzeko. Horrela, irratira deitu nuen eta harremanetan jarri ninduten Irungo Udalarekin, hori da-eta udan umeak hartzen dituen udaletako bat.

Uste dut mutikotxo bat etorri zela zuen etxera.

Bai, Sidi Buya Jtari Zamin izenekoa. 11 urte ditu eta bi hilabete eta erdi egon zen gurekin, udan. Euren kanpamentuetan bero handia egiten du udan; izan ere, 50-60 gradu artean egiten du.

Horrela, urtean barrena txintxoak izan diren, nota onak ateratu dituzten... umeei uda harrera-familiekin oportetean pasatzeko aukera ematen diete. Eta halaxe etorri zen gurera.

Zein da harrera horien helburu nagusia?

Nik uste dut saharar auzia ezagutzera ematea dela helburu nagusia. Jakina, umei ere oso ondo etortzen zaie bi hilabete eta erdian igerilekuan, hondartzan, beste janari mota bat... izatea.



Elsa Manso, Sidi Buya Jtari Zaminen tartekoekin.

Baina umeendako ona izateaz gain, sahararrek bizi duten egoera ezagutzera emateko ere balio du. Gainera, hango ume bat etxean hartuta poliki-poliki gero eta gehiago inplikatzeko zara, eta, horren ondorioz, euren egoera ezagutzen zoaz.

Zuek duela gutxi ere han izan zarete.

Bai, abenduan. Umeak etxean hartzen dituzten familiekin umearen etxera joateko aukera izaten dute, eta gu Sidi Buya Jtari Zaminen etxean egon gara. Haren guraso, osaba-izeba... azken baten, haren familia-rekin egoteko aukera izan dugu, astebetetz.

Aiungo probintzian egon gara, Angala herrian. Sahararrak errefuxiatuen kanpamentuetan bizi dira, atzerrian, eta bizi diren gune horiei euren herrialdeko, Sahararako, probintzien izenak jartzen dizkiete. **Zer-nolako esperientzia izan da?**

Oso polita. Guk dagoeneko galduta ditugun hainbat baliori eusten diete. Esaterako, oso abegitsuak dira, eta harrituta utzi ninduen daukaten umore onak. Bestalde, oso jantziak dira; izan ere, Kubak, Aljeriak eta Libiak hezkuntza ematen diete.

Zer iruditzen zaizu kanpaina?

Oso ondo. Nazio Batuen Erakundeak laguntzak gutxitzen ari bada, lagundu egin behar zaie. Sahara aberatsa da petroliotan, fosfatotan... Eta horregatik Marokok ez du aske utzi nahi; eta, gainera, AEBen eta Frantziaren laguntza du. Kanpainak horren berri emateko ere balio du.



Kartzelariaren etxea konpondu bitartean, kartzela zaharrean egon ahal izango dira gazteak, eta alderantziz.

ARTXIBOA

GAZTETXEA/ Epaitegiarekin izandako auziagatik, proiektuak hainbat aldaketa izan ditu

Gazteak ez dira obrenetatik gaztetxetik irten beharko

MONIKA BELASTEGI

Gazteek ez dute gaztetxea utzi beharrik izango egokitze lanek irauten duten bitartean. Lanek zortzi hilabete inguru iraungo dute, eta bitarte horretan euren ekimenak aurrera eramateko egoitza barik geratzeak arduratu egin zituen Gazte Asanbladako kideak.

Ardura horren ondorioz, Gabonetan hainbat eskuorri banatu zituzten kalean barrena, euren egoera eta jarreraren berri emateko.

teko. Gaztetxeko kideen arabera, Udaleko ordezkariekin abenduan izandako batzar baten gaztetxea egokitze lanek iraun bitartean egoitza laga behar zutela adierazi zitzaizen, nahiz eta aurrez beste gauza bat adostuta izan: kartzelariaren etxea konpondu bitartean kartzela zaharra erabiliko zutela, eta alderantziz.

Gallastegi alkatearen esanetan, obrak egingo dituen enpresak jarritako baldintza izan zen gaztetxea hutsik egotea lanek egiteko, segurtasuna bermatzeko asmoz. Hala eta guztiz ere, gehitu du konponbidea aurkitu diotela kontuari, eta gaztetxearen erdia konpondu bitartean beste erdian egon ahal izango direla gazteak. Nahiz eta, agian, hamabost bat egunez utzi egin beharko duten, lanek hala behartuta.

Bestalde, proiektuari hainbat aldaketa egin behar izan dizkio Udalak Jaurlaritzako Justizia Departamentuak eskatuta, epaitegiarekin izandako auzi bat dela medio; tartean, epaitegira ematen duten leihoak hesitzea. Gaztetxeko esanetan, onartu egin dituzte aldaketok.

Beste lur-jausi bat saihebidetzerain

Azkeneko hilabetean lur-jausi ugari izan da ekialdeko saihebidetan. Euri-jasak izan genituen astean, esaterako, lur-jausi bat baino gehiago izan zen. Duela bi aste, berriz, lur-jausi handiago bat izan zen tunelaren aldamenean. Leku hartan, gainera, saihebidetza eraikitze lanak egin ari zirela ere antzerako zerbait gertatu zen. Gabonen ostean hasi dira mendian behera etorri den lur hori garbitzen. Lan horiek egiteko, zirkulazioa desbideratuta egon da egun batzuetan.

Kamiñeruen etxea guztiz bota dute Gabonetan barrena

MONIKA BELASTEGI

Kamiñeruen etxea guztiz bota dute Gabonetan barrena. Dena dela, egunotan oraindik ere obrak hondakinak jasotzen ari dira bi hondeamakina.

Eraisketa aste batzuk atzeratu da, hainbat arazo izan direla medio. Izan ere, estalkia poluitzaileetan espezializatua den enpresa batek desmuntatu behar izan du. Eta horrek atzeratu ditu Kamiñeruen etxea eraisteko lanak.

UDALAK INTERESA ORUBEAN

Eraikinaren eraistek utzi duen orubea Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, baina Udalak hura eskuratzeko interesa du.

Victoriano Gallastegi alkateak esan duenaren arabera, truke bidez eskuratu nahiko luke Udalak orube hori, eta, seguruenik, etxebizitzak eraikitze erabiliko litzateke. Hala eta guztiz ere, oraindik ere negoziatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta oraindik ere ez dago ezer zehaztuta.



ENEO AZKARATE

Inguruaren itxura erabat aldatu du Kamiñeruen etxearen eraistek.

LABUR

Telefonicaren izenean egiten ari diren iruzurren berri ohartarazi nahi du Udalak

Telefonicako zerbitzu teknikoaren izenean edo euren lan egiten duen enpresa baten izenean zenbait dei jaso dira hainbat etxetan: linearen gaineko hainbat egiaztapen egin nahi dituztela aitzakiaz hartuta, 90 zenbakia markatzeko eskatzen dizute. Markatu ondoren, arazorik ez dagoela esan eta eskerrak ematen dizkizute. Emaizta: deitu duten telefono zenbakiko dei guztien hartzaile bihurtzen dute zure etxekoa. Horren ondorioz, eurek egingo dituzten dei guztiak zuri kobratuko dizkizute. Udalak aditzera eman duenez, Telefonicak ez daki zelan aurre egin iruzurrari.

Datorren astean hasiko dira 2003. urteko odol ateratzeak Seminarioko lokalean

Datorren eguaztenean, urtarrilak 15, izango da urteko lehenengo odol ateratzea. Hurrengo, urtarrilaren 29an izango da. Urtero moduan, hilabete bakoitzeko bi edo hiru odol ateratze egingo dituzte. Guztiak eguaztentean, 18:30etatik aurrera, elkarrekin Seminarioan duen egoitzan.

Gainera, Fernando Idigoras elkarteko presidentek esan duenez, odol behar handia dago eta ahalik eta jende gehien animatzea komeni da. 2002. urteari dagokionez, 1.477 ateratze egin zituzten hogeita lau saiotan.

Umeen bertso eskolan oraindik ere izena emateko aukera dagoela dio Jardunek

Umeen bertso eskola joan den egunenean hasi zen arren, interesatuek oraindik ere izena emateko aukera dutela aurreratu du Jardun euskara elkarteak.

Eskolak Arrizuriaga jauregian dira, egunetan, 18:00etatik 19:30era, eta irakasleak, berriz, Ainhua Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza bertsolariak dira.



ELKARRIZKETA

LIBE TXINTXURRETA/KZGUNEKO TUTOREA

“Gure helburua da herritar gehienengana zabaltzea Internet”

MONIKA BELASTEGI

Hilabete eta erdiko ibilbidea egin du dagoeneko KZGuneak. Guneke tutoretako batek, Libe Txintxurretak, ibilbide horren gainbegiratua egin du. Balorazioa oso positiboa da, eta gero eta erabiltzaile gehiago dituela esan du.

Zer-nolako harrera izan du KZGuneak?

Oso ona. Hasieran, poliki-poliki hasi zen jendea hurbiltzen, baina ahoz ahokoak oso ondo funtzionatu du, eta abenduan jende asko etorri da.

Azaroaren 21ean ireki genuen, eta 98 lagunek eman zuten izena azaroan. Gero, abenduan, 98tik 280 lagunera egin zuen salto. Orduan, harrera oso ona izan da. Batez beste, 10-12 lagun ibili da egunero.

Zer-nolako jendea etortzen da?


Nabigazio Gelara, batez ere, gazteak, 16 urtetik hasi eta 35era bitartekoak. Badakite ordenagailua eta Internet erabiltzen, eta euren kasa aritzen dira, nahiz eta batzuek laguntza behar izaten duten; baina beste tutore bat eta biok horretarako gaude.

Ikastaroen kasuan, batez ere, etxeakoandreak dira izena ematen dutenak. Eta langabe nahikotxo ere etortzen dira. Baita ikasketak bukatu berri dituzten gazteak ere. Adinari dagokionez, ikastaroetan izena ematen duten gehien adina 35 eta 44 urte artekoa da. Hala ere, adin tarte horretakoek Nabigazio Gela ere erabiltzen dute, ikastaroa amaitu eta ikasitakoak praktikan jartzeko; bereziki, posta elektronikoa. Ordenagailuak jende nagusiari, batez ere, beldur pixka bat ematen ei dio. Igarri duzue hori?

Bai. Hasieran, pantailaren aurrean tente eta geldi egoten dira. Baina esaten diegu lasai ukitzeko, ez duela eztanda egingo. Edozelan ere, batzuei kostatzen zaie, sekula erabili bako gauza bat delako.

Gehien kostatzen zaiena sagua erabiltzen ikastea da, baita gauzak zelan gorde behar diren ere. Baina eskolak egunero direnez, poliki-poliki aurrera egiten dute. Ordenagailuaren funtzionamendua da zailena. Internet errazago egiten zaie, eta posta elektronikoa ere kostatzen zaie. Baina emaitzak ikusten dituztenean, berehala animatzen dira. Urtarrilean ikastaro asko egongo dira.

Abenduan lau eman genituen: hiru oinarrikoak, hau da, 22 ordukoak, zerotik hasita; eta bat Nagusi Web deitzen dena, hau da, 65 urtetik gorakoendako.



MONIKA BELASTEGI

“Harrera ona izan du guneak: lehen bi asteetan 98 lagunek eman zuten izena; abenduan, 280k”

Urtarrilean bederatzik ikastaro emango ditugu: zazpi oinarrikoak, beste ikastaro bat aurreratu eta beste bat Nagusi Web delakoa. Ikastaro bakoitzean hamabi lagunendako tokia egoten da. Guztiak beteta daude dagoeneko, erretiratuena izan ezik. Hor oraindik ere izena emateko aukera dago.

Baina horiek amaitu eta beste batzuk antolatuko dituzue.

Hori da. Interesa duenak nahi duenean etor daiteke izena ematera. Guk izena hartuko diegu, eta hamabiko taldeak osatuz joaten gara ikastaro bat amaitu eta beste batekin ekiteko. Betiere, talde horiek interesatuari komeni zaion ordutegira moldatuta.

“Merezi du izena ematea, aukera ona da ordenagailuaren esparrua ezagutzen hasteko”

Uste dut merezi duela izena ematea, aukera ona da ordenagailuaren esparrua ezagutzen hasteko, eta dohainik. Gure helburua da ahalik eta herritar gehienengana zabaltzea Internet. Zeintzuk dira Nabigazio Gelaren erabilera nagusiak?

Duda barik, posta elektronikoa erabiltzen da gehien.

Bestalde, kontuan izan behar da urtarrilean Nabigazio Gelaren ordutegia aldatu egingo dela; kontua da ikastaro asko daudela, eta Nabigazio Gela ere ikastaroetarako erabiliko dugula. Urtarrilean, orduan, murriztu egingo da Nabigazio Gelaren ordutegia. Honakoa izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; baina urtarrilean bakarrik.



Luis Mari Azkargorta ‘Kanto’, etxean

Martitzenean, Ruth Alonso epaileak baldintzapeko askatasuna eman ondoren, Martuteneko espetxetik herrira iritsi zen Kanto. 14 urte egon da espetxean, 1988ko apirilaren 22tik. Orduetik hona Estatuko zortzi espetxetan egon da, eta azkeneko lau urteak Martutenen eman ditu. Martitzenean, senitartekoez, lagunek eta hainbat herritarrek harrera egin zioten eta domekan, 19:00etan, ongietorria egingo diote San Martin plazan.

Etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa antolatu dute

MONIKA BELASTEGI

Iaz izandako arrakasta ikusita, aurten ere etxeko ardurak gizon eta emakumeen artean trukatzeko lantegia antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Izena emateko epea zabalik dago.

Lantegiaren helburua etxeko ardurak gizonezkoen eta emakumezkoen artean trukatzea izanik, bi ataletan banatuta dago: bata, emakumezkoendako eta bestea, gizonezkoendako.

Emakumezkoen kasuan, gai hauek landuko dituzte ikastaroan: iturgintza, elektrizitatea, brikolajea eta etxeko ekologia.

Gizonezkoen kasuan, zera landuko dute: joskintza, lisatzea,


sukaldaritza, garbiketa eta etxeko ekologia.

Biek hala biek bost aste iraungo dute, eta astean birritan izango dira eskolak, martitzenetan eta eguenetan, hain justu, 19:00etan. Bestalde, Gizarte Zerbitzuetako iturrien esanetan, urtarrilaren 21ean hasiko dira, taldeak ordu-rako osatuz gero.

PLAZA MUGATUAK DIRA: GEHIENEZ, HAMABOST LAGUN

Izena emateko epea zabalik dago, eta plaza mugatuak dira: gehienez, 15 lagunek hartu ahal izango dute parte lantegian.

Izena emateko eta informazio zabalagoa eskuratzeko, Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegoan edo 943 77 91 25 telefonora deituta.



ARTXIBOA

Iazko arrakasta ikusita, berriro antolatu dute etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa.

AEK-KO MARISKADA, ZARAUTZERA

Urtero bezala, Akulu AEK euskaltegiak mariskada zozketatu zuen abenduaren 24an, arratsaldean. AEK-ko lagunak San Martin plazan jarri zuten ikusgai mariskada eta txartel ugari saldu zituzten, arratsalde partean herritar ugari zebilen kalean-eta. Baina Bergaran geratu beharrean, Zarautzera egin zuen alde mariskadak. Mariano Valentin genuen 146 zenbakiaren jabea eta argazkian ikusten den saria eskuratu zuen. Norbaitek ondo baino hobeto afalduko zuen Gabon gauean...



BAI EUSKAL HERRIARI TALDEAREN MARISKADA EDER ASKOA!

Bai Euskal Herriari taldeak Gabonetan zozketatutako mariskada German Amurriok eraman zuen etxera. Zozketa abenduaren 31n egin zen eta 1.401 izan zen saritutako zenbakia. Esan bezala, German Amurriok mariskada ederra irabazi zuen eta ziurrenik familiako edo lagunei afari ederra gertatuko die laister. Argazkian German Amurri (ezkerrean) eta Jose Mari Aranzabal Bai Euskal Herriari taldeko kidea.

SAN MARTINEKO IKASLEAK ANOETAN

San Martin ikastetxeko ikasleak Anoetako estadioan izan ziren joan zen abenduaren 23an. Realak probintzia osoko ikastetxeei bere instalazioak bisitatzeko gonbidapena luzatu zien eta San Martineko gurasoen elkarteak Donostiara irteera antolatu zuen. Hainbat gurasoen laguntzaz, OHOKo 3. eta 4. mailako 30 bat ikasle izan ziren Zubieta eta Anoeta ikusten. Zubietan, gainera, beste ikasle batzuen kontrako partidua jokatzeko aukera izan zuten. San Martineko ikasleak futbolearen benetan trebeak direla azaldu zuten. Ondoren Anoeta goitik behera erakutsi zieten. Argazkian ikus daitekeenez, berdegunean ere izan ziren San Martineko ikasleak, Realeko kamiseta eta guzti, nola ez. Denoueix Realeko entrenatzailea lasai egon daiteke, harrobian etorkizun handiko jokalaria daude eta.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Iñaki
Jauregi

ZARAITZU DENDAKOA

Iñaki Jauregik (27 urte) Irudi eta Soinu ikasketak egin zituen Andoainean. Abendua ezker Zaraitzu dendan ari da lanean. Musikazale amorratua, ahal duen bakoitzean lagunekin batera taulara igo eta rocka egitea gustatzen zaio.

Nondik dator Zaraitzu izena?

Nafarroako ibar baten eta erreka baten izena da. Txikitan, askotan joaten ginen hara familiakook.

Mutur-fina zara?

Bai, ondo jatea eta edatea gustatzen zait.

Saltzen dituzun produktuetatik gehien gustatzen zaizuna? Ahatekiak.

Saltzaile ona izateko sekretu bat?

Jendea, bezeroak, ondo tratatzen jakitea, besterik ez.

Sukaldari ona zara? Zure espezialitatea?

Gustatzen zait saltseatzea, bai. Bakailaoa pil-pil erara eta barazki-paella nahiko ondo gertatzen ditut.

Plater gustukoena? Eta edari bat?

Onddo-nahaskia eta, edateko, ardo beltz on bat.

Ogitarteko bat eskatzekotan, zerena?

Txibierroena.

Zein jatetxetan afalduko zenuke gustura? Eta zeinekin?

Akelarren, Donostian, Britney Spears-en koadrilarekin.

Film bat/Liburu bat/Musika talde bat?

El apartamento (B. Wilder)/ Lolita (Nabokov)/ Guns'n'roses.

Zinemazalea zara. Emakumezko eta gizonezko aktore bana?

Jack Lemmon eta Ava Gardner.

Egondako azken kontzertua?

Aspaldi. Fun Loving Criminals taldearena, Jam-en.

Aisialdian zer egitea duzu gustuko?

Irakurtzea, idaztea, zinemara joatea, parranda egitea...

Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Handi izan nahi nuen. Eta piraten filmak ikustean, haien moduan bizi izatearekin amets egiten nuen.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Zintzotasuna.

Urte berrirako asmorik bai?

Negozia aurrera ateratzea eta ondo pasatzea.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Asia aldera. Txina ezagutzeko gogoia daukat.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Joxin García

TANZANIA / 2002an, abuztuan

Aspalditik neukan Afrikara joateko gogoia, eta lagun bat eta biok Tanzaniara joan ginen aurreko udan, abuztuan. Sukar horiaren aurkako txertoa hartzea derrigorrezkoa da hara joateko. Hamar bat orduko hegaldia egin ondoren, Moshira heldu ginen. Moshi Kilimanjaro menditik oso gertu dago, eta handik irteten dira Afrikako gailurrera joateko espedizio gehienak. Gurea antolatutako bidaia zen, eta bost lagun ibili ginen: bi katalan, gidaria eta gu biok. Hamabost eguneko bidaia egin genuen.

Lehenbizi, Machame ibilbidea jarraituta, Kilimanjaro igo genuen, sei egunean. Machame Gate izeneko tokian ekin genion igoerari, 1.800 metrora, eta gidari bat eta 13 porter etorri ziren gurekin. Espedizioa azken egunean, 4.600 metrora geunden, eta gauz irten ginen gailurrera heltzeko. Egia esateko, bidea ez da batere polita, eta abuztuan ez zegoen elur handirik. Esaten dutenez, Kilimanjaro betiereko elurak erdira murriztu dira azken mendeetan. Kilimanjaro sumendia da eta 5.896 metro garai da. Igotzean paisaia ederrak ikusteko aukera dago, eta alboan 5.000 metrotik gorako beste bi mendi daude: Mawenzi eta Meru, hain zuzen ere.



“Kilimanjaro sumendira sei egunean igo ginen. Paisaia ederrak ikusten dira”

“Ngorongoroko kraterra benetan ikusgarria da; han ikusitako gauza ederrena”

ikusteko aukera izan genuen. Mushira bueltan, azken eguna han eman genuen. Erosketa batzuk egin eta hiri erdialdean ibili ginen hango giroaz gozatuz.

EDU MENDIBIL



Aitor Alberdi (zutik, ezkeretik bigarrena) eta Joxin García bergararrak bidailagunekin batera, Kilimanjaro atzean dutela.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ZAHARREN ETXETIK

Txapelketak, jaiak eta zozketak urtea agurtzeko

EDU MENDIBIL

A benduaren bukaeran hainbat ekitaldi izan ziren San Joxepe erretiratuen elkartearen. Besteak beste, txapelketak, jaiak eta zozketak antolatu zituzten urtea agurtzeko, eta beti bezala umore ezin hobe erakutsi zuten San Joxepeko lagunek.

Karta jokoetan partaidetza handia izan zen ohiturari jarraituz eta irabazleek gogor borrokatu behar izan zuten txapelak janzteko. San Joxepen ez dago arerio makalik. Mus txapelketan Lucas Díazek eta Carmelo Casellesek osatutako bikotea nagusitu zen, finalean Angel Izuskiza-Miguel González bikoteari irabazi ondoren. Tutekoa, berriz, Rafael Vallejo eta Jose Mari Akizuk irabazi zuten eta azpi txapeldunak Jesus Manso eta Luis Blázquez izan genituen. Briskakoan emakumeek euren nagusitasuna azaldu zuten: Ana Morazak eta Isabel Rejanok Luis Alberdiri eta Eusebio Mendizabali irabazi zieten finala. Eta billarrean takoarekin eta kantuan artista den Gabriel




San Joxepe
Maria eta Juste Amenabar ahizpei saria egokitu zitzaizkien txistorra-jana egunean.

Medina gertatu zen txapelduna.

Era berean, Santo Tomas egunaren bezperan, abenduaren 20an, txistor-jana egin zuten San Joxepen. Guztira, 300 bat lagun

bildu ziren erretiratuen egoitzan eta txistorraz eta edariez gain, dantzaldia ere izan zuten. Azken urteotan sekulako arrakasta izan du txistor-janak eta aurten ere era-



San Joxepe
Tere Urkiaga eskuratutako sariarekin eta alboan Juan Iturralde.

bat gozatu zuten bertaratuek. Biltutako artean, txanpan botelak eta turroiak zozketatu zituzten eta ia guztiendako sariak egon ziren. Goiko argazkietan Tere

Urkiaga eta Amenabar ahizpa sarituetako batzuk ikus ditzakezue. Aurtengorako ere hain sorpresa gertatuko dizkigute San Joxepekoek, ziur.



San Joxepeko abeslariak

Maite Suinagak utzitako argazki honetan San Joxepeko abesbatzako kideak ikus ditzakezue, dotore-dotore jantzita. San Joxepekoek Gipuzkoako Erretiratuen Abesbatzen Topaketan hartu zuten parte aurreko hilean, abenduaren 18an. Gipuzkoa osoko 12 talde elkartu ziren hantxe eta giro ona izan zen nagusi. Legazpiko zinema aretoan egindako topaketaren ostean, partaide guztiak (500 bat lagun) elkarrekin ogitarteko bat jateko bildu ziren iluntze aldera, jai giroan.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein etxetan dago ezkerreko farola eta zein plazatan eskumakoa?

PINTORE BERGARARRAK GAUR


Jon Andoni Urisabel

EDU MENDIBIL

Pinturarako zaletasuna txikitatik izan du Jon Andoni Urisabelek (Bergara, 1972). Leioako Fakultatean Arte Ederretan lizentziaduna da, eta dioenez, "han egindako lagunak izan ziren ikasketetako gauzarik onena. Ikasketak bukatuta, taldetxo batek aurrera egin genuen elkarrekin, eta hainbat erakusketa kolektibo egin genituen". Orain, Bilbon ari da lanean Urisabel, euskara irakasle, eta pintura kontuak erdi geldirik dituela diosku: "Gauza asko ditut buruan, baina gauzatzeko denborarik ez". Azken erakusketa orain dela 3 urte egin zuen, Bilbon.

Estilo bilakaerari dagokionez, zera dio: "Formazio akademikoa edo tradizionala jaso izan dut, eta horrekin guztiarekin apurtu behar izan dut aurrera egiteko". Influentziei dagokionez, batez ere, hurbileko lagunekin asko ikasi duela azpimarratzen du. Era askotako gaiak landu izan ditu margoetan: "Gaia aitzakia baino ez da pintura bitartez erreflexionatzeko. Nire iritziz, pintura neure buruarekin ikasteko modu bat da. Ikusleari baino gehiago, neure buruari begiratzeko diot margotzerakoan".

"Fakultatean egindako lagunak, taldetxoa, izan ziren ikasketetako gauzarik onena"



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Janari hauetako zein ez da komeni ematea sahararren aldeko kanpainarako?

- A/ Lekaleak.
- B/ Pasta.
- C/ Haragia.

2.


Aktore hauetako batek ez du parte hartzen Palabrarismos antzezlanean. Zein?

- A/ Pako Sagarzazu.
- B/ Begoña Bilbao.
- C/ Mikel Garmendia.

3.

Noiz debutatu zuen Iker Muruamendiaraz pilotariak profesioletan?

- A/ 2000ko otsailean.
- B/ 200ko maiatzean.
- C/ 1999ko abenduan.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDRES ALZELAIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Andres! Azken lehiaketako galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Gabiria** / Galde debalde: **1-A, 2-C, 3-A.**



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARA-RA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ian tomate txikitua

400 gr.-ko hiru lata

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

KONDE
PANADEROKUA



Burdifate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurria

Zurezko artikuluak

Bergarako oleo eta lumatxoak

Koldo Eleizalde 1. Bergara. Tf. 943 76-70 60



BERGARA
Mikel Larrañaga
Urtarrilaren 16an 4 urte.
Urte askotarako!
Ainhoa eta Miren.



BERGARA
Imanol Retolaza
Urtarrilaren 4an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eukene Labaka
Urtarrilaren 8an 8 urte.
Urte askotarako!
Markel.



BERGARA
Leire Balanzategi
Abenduaren 29an
10 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta Unai.



BERGARA
Iker Elizburu
Urtarrilaren 12an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Josu.



BERGARA
Maider Amutxastegi
Urtarrilaren 4an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Varela
Abenduaren 29an 4 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
aitona-amonak.



BERGARA
Mikel Mujika
Urtarrilaren 9an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Aitzol Gutiérrez
Urtarrilaren 13an 10 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta gurasoak.



BERGARA
Nikolas Arzelus
Urtarrilaren 7an
urtebetetzea. Zorionak!
BERRIGARakoak.



BERGARA
Elisabeth Losada
Urtarrilaren 10ean
35 urte. Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Ana Fuentes
Urtarrilaren 14an 4 urte.
Zorionak! Familiakoak;
bereziki, Ander.



BERGARA
Andoni Elorza
Urtarrilaren 15ean
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Deiane Pérez
Urtarrilaren 12an
11 urte. Urte askotarako!
Hodei eta gurasoak.



BERGARA
Amaia Macias
Urtarrilaren 11n 3 urte.
Zorionak! Etxekoak;
bereziki, Jon eta amamak.



BERGARA
Ane Morillas
Urtarrilaren 15ean
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenerat 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK


Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA


1. Euskal selekzioaren ed-rom jokoa



**eskatu
orain!**

902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!




Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean, 72 orduan bidaltze gasturik gabe



35,95 euro

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 10a / 141. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Independentzia Eguna ospatuko dute zapatuan

AINTZANE IRIZAR

Orain dela 373 urte lortu zuen Antzuolak independentzia, 1629ko abenduaren 12an, hain zuzen ere. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatzen ditu herriko gazte talde batek urtero. Aurten ere ospakizun egun polita antolatu dute biharko, urtarrilak 11.

Goizean goizetik gauera arte hainbat ekitaldi izango ditugu bihar, zapatua, gure herriaren independentzia ospatzeko.

Goizeko hamarretan, herriko txistulariek kalejira egingo dute, herriko kaleak alaitzeko. Eguerdialdera, 12:30ean, hain zuzen ere, herri poteoa antolatu dute parte hartu nahi duen guztiarendako, herriko trikitilarien doinuek lagunduta.

Horren guztiaren ondoren, eguneko ekitaldi nagusia izango dugu: herri bazkaria, Udal Pilotalekuan.

Mox eta Larrea tabernetan daude bazkari horretara joateko txartelak salgai, hamabi eurotan; bazkarira joan nahi dutenek azkar ibili beharko dute, baina, txartelen bat eskuratu nahi baldin badute.

Bazkalostean ekitaldi ugari egongo da, giroa alaitzeko: herriko dantzariak arituko dira, baita trikitilariak eta txaranga ere. Bestalde, azkeneko urteetako ohiturari utsiz, herriko koadrilek hainbat ikuskizun prestatuko dituzte bazkalosteko saio horretarako.



Bazkalostean hainbat ekitaldi eta ikuskizun izango dira.

Gauean, azkenik, 23:30ean, Biduri Sound musika animatzailearen emanaldiaz gozatzeko eta dantza egiteko aukera izango dugu Zurrategi plazan.

Egun horretako ospakizunetan parte hartzen duten herritar guztiei baserriar janzteia eskatzen diete antolatzailerak, baita gainerako herritarrei ere.

ANTZUOLAK HERRI IZAERA LORTU ZUEN Urte hauetan guztietan Independentzia Eguna urtarrilean ospa-

tzen duten arren, abenduaren 12an izaten da Antzuolaren independentziaren urteurrena. 1629. urteko abenduaren 12an, hain zuzen ere, lortu zuen Antzuolak herri izaera edo independentzia, 1391. urtea ezkerreko Bergararen parte izan eta gero.

Historiaren arabera, Bergararengatik banandu eta independentzia lortu ahal izateko, urrezko 5.000 dukat ordaindu behar izan zizkion Antzuolak Felipe III.ari.

LABUR

Hazparneko ikastolari laguntzeko dirua batuko dute urtarrilaren 25era arte

Hazparneko ikastolari laguntzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte azkeneko hilabeteetan. Besteak beste, ikastola diruz laguntzeko kanpaina egin zuten, eta Idolazek herriko bi aurrezki kutxetan dituen kontu-korronteetan dirua sartzeko aukera dago urtarrilaren 25era arte. Udalak ere eman dio dirulaguntza ikastola horri.

Urtarril bukaeran irekiko dute KZGunea, eta hainbat ikastaro antolatuko dituzte

Urtarrilaren 29an zabalduko dute Konekta Zaitetz Gunea Olaran etxeke lehenengo solairuan. Zabaltzen duten egunetik bertatik, Internet erabiltzen ikasteko doako ikastaroak egongo dira, nahi duen guztiarendako. Izena emateko epea zabalik dago, udaletxe-ko bulegoetan.

Inersoren Bainuetxe Programan parte hartzeko, udaletxean eman behar da izena

Inersoren Bainuetxe Programan parte hartzeko, Udaleko gizarte laguntzailearengana jo dezakezue izena ematera eta informazioa jasotzera. Inersok eskaintzen dituen bainuetxeetako egonaldi horietan abuztua baino lehen parte hartu nahi izanez gero, urtarrilaren 21a baino lehen eman behar da izena.

AKEk eta Gazte Asanbladak Gabonetan antolatutako zozketen emaitzak

Hainbat zozketa antolatu dituzte herriko taldeek Gabonetan. Antzuola Kirol Elkarteak saski eder bat zozketatu zuen, eta honako zenbakia izan da saritua: 17.703, hain zuzen ere.

Gazte Asanbladak, berriz, txerrikia zozketatu zuen: 912 zenbakidun txartela izan da irabazlea.

Gizarte etxea botatzeko lanak lehiaketara atera berri ditu Antzuolako Udalak

Abenduko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzarrak Guraso Elkar-tearena eta maristena izandako eraikina botatzea. Orain, lehiaketara atera ditu proiektua idatzi eta eraikina botatzeko lanak. Hilaren 20ra arte egongo da zabalik proposamenak aurkezteko epea. Horren ondorioz, laster botako dute eraikina.

ZURE IZENA ETA HELBIDEA

ANTZUOLA • ARETXABAETA • ELGETA • ESKORIATZA • OÑATI

Zerbitzu hobea emateko asmoz, herri horietan otsailetik aurrera ETIKETAREKIN banatzen hasiko gara GOIENKARIA.

Astero eta doan jasotzen jarraitu nahi baduzu, DERRIGORREZKOA da izen-deiturak eta helbidea ematea.

Datuak eman dituztenek BAKARRIK jaso ahal izango dute GOIENKARIA.

943 71 23 90/91
jaranguren@goiena.com

Goienkaria

KIROLA

Parte-hartze handia Futbito Txapelketan

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuta, 24 orduko Futbito Txapelketa jokatu dute urtarri-leko lehen asteburuan. Mutiletan Txuri-Beltz taldeak irabazi zuten; nesketan, berriz, parte hartu zuten bi taldeei eman zizkieten trofeoak. Hamasei taldek hartu dute parte.

Azkeneko urteotan bertan behera lagata zegoen ohiturari heldu nahi izan dio Antzuolako Gazte Asanbladak, eta, horrela, 24 orduko Futbito Txapelketa antolatu du.

Zapatuan, urtarrilaren 4an, hasi zen txapelketa, arratsaldeko zazpietan, eta domekan arratsaldeko zazpietan jokatu zuten finala. Denera, 25 orduko futbito ikuskizuna izan genuen herriko frontoian.

DENERA, HAMASEI TALDE

Gazte Asanbladako kideak pozik azaldu dira txapelketak herrian izandako harrerarekin, eta ekitaldi horren balorazio oso positiboa egin dutela azaldu digute. Parte-hartzaileez gain, ikusleak

asko ere egon ziren frontoian, eta giro paregabea jarri zuten, gainera, zapatu gau osoan. Bes-tetik, txapelketan parte hartu zuten jokalariek eurak ere gustura azaldu ziren.

Bi mailatan jokatu dute Futbito Txapelketa: alde batetik, 14 urtetik gorako mutilak; eta, bestetik, neskek. Neskei dagokienez, bi taldek bakarrik eman zuten izena, eta bi partidu jokatu zituzten elkarren aurka. Partidu bakoitzean, baina, jokalaria ezberdinek parte hartu zuten talde bakoitzean, eta antolazailleek denei eman zizkieten trofeoak.

Mutilen mailan kompetentzia eta lehiakortasun handiagoa egon zen; izan ere, hamalau taldek hartu zuten parte txapelketan. Azkenean, Txuri-Beltz taldeak eraman zuen txapela, eta Eruption geratu zen bigarren, domeka iluntzean jokatutako partiduan.

Azkenik, aipatu behar da txapelketa amaitu zenean, jokalarien hainbat oinetako, toaila eta bestelakoak aurkitu zituztela antolazailleek, eta udaletxeko bulegoan daudela.



Pintadak, gazteendako lokalak eskatzeko

Aurreko astean, pintadak azaldu ziren udaletxeko arkupean eta Herri Ikastetxeko horma baten; zera zioen pintada horrek: *Udaletxe honekin gazteak gogor. Lokalak orain!*. Mireia Unamuno alkateak azaldu digunez, aspalditik ari da Udala gazteendako lokal baten bila: "Kontua da lokal berezia behar dugula; edozein ez da egokia gazteendako lokal moduan erabiltzeko, zaratengatik, kokapenagatik edo egoeragatik." Herri guztian begira ibili eta gero, lokal egoki batzuk aurkitu zituzten, baina jabeek ez zizkieten errentan eman nahi. Azkenean, baina, errentan emateko prest dagoen ugazaba bat aurkitu dute, eta negoziatioetan ari dira momentu honetan. Datorren astean lokal hori eskuratzea espero dute Udaleko arduradunek./A.I.

HERRITARREN HITZA / Paco Morcillo · Langilea

Etxebizitza berriak eta parke txikiak

Azkeneko urte hauetan etxebizitza berri asko eraiki dituzte Antzuolan.

Kanpoko jende asko etorri da herrira etxebizitza horiek erostera, eta horrek herria handitzea ekarri du. Era berean, inbertsioa motibatu egin da horrekin batera. Etxebizitza berriak erostea oso positiboa iruditzen zait, baina, batzutan, herria lo egiteko toki bat baino ez izatea ekarri izan du horrek.

Hala eta guztiz ere, herriak asko irabazi du nire ustez, eta datozen urteetan ere biztanle-

ria haziz doala nabarituko dugu, etxebizitza berriak eraikitzen ari direlako, hain zuzen ere.

Herria urbanistikoki haziz jarraitzea espero dut. Ongizatea eta eguneroko elkarbizitza atseginagoak izango dira eta.

Bestalde, herriko parke txikiak gainean jardun gura nuke tarte honetan. Gabonetako jaiak eta



"Datozen urteetan ere biztanleria haziz doala nabarituko dugu"

oporak bukatu berri zaizkigu, eta eguneroko bizitzara, normaltasunera, itzuli gara.

Herrian zehar egiten ditudan pasioetan, bi parketan ibiltzen naiz gusturen. Batetik, erdi-erdian Antzuolako gurutzea duen parkea, Errekalde auzoaren parean.

Errepidearen beste aldean, berriz, Antzuolako gurutzearen parkearen

parean, Antiguako ermitaren, errotaren eta ahateen urmaelaren aldamenen, nik neuk zuhaitzen parkea deitzen diodana dago.

Zuhaitz mota ezberdinak ditugu parke horretan, eta denak gustatzen zaizkit, oso dira politak; baina, badago bereziki erakartzen nauen zuhaitz bat, artelatza, hain zuzen. Izan ere, inguru hauetan ez dago artelatza ikusteko aukera asko.

Herrietako parke txiki hauetan lasaitasunaz eta ongizateaz gozatzeko aukera paregabea dugu.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urtarrilak 12

16:00: Antzuola-Dunboa-Eguzki

(Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 2 Zumaiko 3 (2. erreg.)
Beti Ona 0 Antzuola 5 (Gazteak)

Beti Ona taldearen aurkako partidua izan da gazteen taldeak jokatu duen igoera faseko lehendabiziko partidua. Gazteen bigarren maila dago taldea, eta lehen mailara igotzeko aukera dauka.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioakKalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegiaBuztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatutako
eta
barnizaketaKalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko urtarrilaren 10a / 125. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Loterian jasotako 18.000 euroak banatzen dihardu Goibekok

OXEL EROSTARBE

Saritutako txartelak dituztenak GOIBEKOKALEk kultura etxean daukan bulegotik pasa daitezke urtarrileko bariku eta zapatu guztietan. Txartel bakoitzak 26,4 euroko saria du. Guztira, 18.000 euro banatuko ditu Goibeko Kultura Elkartek herritarren artean.

Goibeko Kultura Elkarteko Gabonetako loteria erosi zutenek pozik ekin diote urte berriari. Erositako txartel bakoitzarengatik 26,4 euroko saria jasoko dute. Elkarteko arduradunek urtarrileko bariku eta zapatu guztietan jasoko dituzte txartelak GOIBEKOKALEk kultura etxean duen bulegoan. Barikuetan, 19:00etatik 20:00etara egongo dira bertan eta zapatuetan, 11:30etik 13:00etara. Irabazitako dirua jasotzeko saritutako txartelak aurkeztu behar dira. Guztira, 18.000 euro banatuko dituzte Goibeko Kultura Elkartekoek. Urtarrileko lehenengo astean hasi ziren saritutako txartelak jasotzen eta dagoeneko 7.000 euro inguru banatu dituzte. Txartelak erosi zenituztenoi, zorionak.




Dagoeneko herritar ugari pasatu dira GOIBEKOKALEko bulegotik Gabonetako loterian irabazitako euroak jasotzera.

BAZKIDEENDAKO EGUTEGIAK, DOAN

Aurten ere Debagunea elkarteko egutegiak saltzen dihardu Goibeko Kultura Elkartek. Debagoeneko euskara elkarateek osatzen dute Debagunea. Hainbat herritako erretratuak batu dituzte, baita Elgetakoak ere. Egutegi bakoitzak 5 euro balio du. Elkarteko bazkide direnek doan jasoz

dezakete egutegia, GOIBEKOKALEko bulegotik pasatuta. Urtarrilean barrena, bariku iluntze eta zapatu eguerdietan izango dira han elkarteko arduradunak.

dezakete egutegia, GOIBEKOKALEko bulegotik pasatuta. Urtarrilean barrena, bariku iluntze eta zapatu eguerdietan izango dira han elkarteko arduradunak.



Industrialdera joan nahi eta kataia ezin pasau

Pagatzako industrialdian dagon Laibe enpresara makiña barrixa ekarri zeben urtarrilaren 2xan. Makiña ekartziaz arduratu bihar ziran teknikarixak bertan izan ziran bi aste lehenago, egin biharreko bidia ezagutzeko. Dana ondo neurtuta zeukela pentsau arren, nahikua lan izan zeben makiña kataittik pasatzeko. Lehenengo alegiñan 20 zentimetro ingurugaittik ez zan sartzen. Makiña zittuan kaltzuak kenduta sartu zan./O.E.

LABUR

EAJ-EAren aldeko botuekin onartu zeben aurrekontua

Abenduan 26xan eztabaidatu zittuen aurrekontuak uda ordezkariak. Bittor Gallastegi, Sebastian Arantzabal eta Xabier Basauri abstenidu egin ziran. Hortaz, EAJ-EAko zinegotzixen aldeko botuekin onartu zeben 3.364.939,12 euroko aurrekontua.

Proposatutako inbertsioekin ados egon arren, aurreikusten diran diru sarrerak zenbateraino beteko diran argi ikusten ez zebelako abstenidu ziran oposiziñoko zinegotzixak.

Proiektu geoteknikua egin dabe Torrealdean

Martitzenian eta eguaztenian Decolor enpresako teknikarixak proiektu geoteknikua egitten jardun zeben Torrealdean. Han egingo diran etxebizitzetan interesa agertu zeben lagunekin datorren hillabetian egingo dabe batzorra tenikarixak. Batzorra egin aurretik, babes ofizialeko etxebizitzak egittiaz zein arduratuko dan zehaztu nahi dabe. Horren etxebizitzon zozketaz zein modutan egingo dan le ordurako erabakitta eukitziz nahi dau Elgetako Udalak.

Pagatzara, 50 langilleko enpresa etorriko da

Dena lotuta egon arte izen jakingo ez dogun arren, Udalen eta 50 langille dituen Bizkaiko enpresa baten arazo ko harremanak nahiko aurreratu dare. Enpresa barrin Pagatzako industrialdian kokatuko da. Udalak enpretxikiaguekin ere badiharu harremanetan. Pagatzako batzartelazio proiektua bi hillabeten barru onartuko dabe. Ordurako, enpresa bakoitzaz zein partzela hartuko dituen zehaztuta eukitzia nahi dabe teknikarixek.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Ynestrillas zaliak

Es-kumako eskua altzau eta kantu-rreuan arritu ziran. Kanturreua bestetik ez dira eta, "cara al sol", españolen innua eta generalan aldeko berbak esatia. Ynestrillasen jarraitzailetako batzuk elgetarrak. Letrak jakitzia be! Lotsatuta bihar leukie! Lotsatuta, errespeto gutxi erakusten dotselako jaio, bizi edo etorri diran herrixai. Eta lotsatuta, euren seme-alabentzat, mundu erdara parlante, haundi eta osua nahi izatia, lotsatzeko modukua dalako. Elgetan hau gaudituta genkala uste neban. Gurasuak erdaldunak ala euskaldunak, batera jolastu izan dogu urtietan umiok. Ynestrillasen jarraitzaile diran gurasuak, honekin amaitzen dihardue.

Ozkarbixan egin zittuenak jakinda, ezin asmauka nabil, txarruak hemenguak ala hanguak diran. Ume batzuk, ez dittue merezi, dittuen gurasuak. Beste batzuk bai.

Iker, Ana, Garbiñe eta Benito ekarri nahi ditut gogora. Urtietako bidian ostian, Pariseko zikoñiak eurenian geldiunia egin dabelako. Hasi dogun urte barrixan, seme alaben negar, pauso eta berbez gozatuko dabe.

Bukaerik merezi dittu hartu izandako bidia.

JONE MUXIKA, EUSKADIKO TXAPELDUN

Euskadiko Ziklokros Txapelketa irabazita, Espainiakoan hartuko du parte Jone Muxikak

O.E.

Gipuzkoako Txapelketan bigarren geratu ondoren, zapatuan, Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Jone Muxikak. Bihar Asturiasen jokatu den Espainiako Txapelketan parte hartuko du elgetarrak. Helburua izango da iaiz lortutako hamargarren postua hobetzea.

Alfa Decoko txirrindulariak maila bikaina eman zuen Beran jokatutako Euskadiko Txapelketan. Orain arteko lasterketa guztiak irabazi dituen Nekane Lasaren aurretik iritsi zen helmugara: "Lasterketa hasi aurretik, aurrenekoen artean egotea zen helburua. Ibilbidean lokatz asko zegoen, eta Nekane Lasak arazo batzuk izan zituen bizikletako kanbioarekin. Hori gertatu zenean haren atzean nindoan, eta berehala konturatu nintzen. Hala, atzean utzi, eta minutu bateko aldea hartu nion. Nire bizikleta ere lokatzez beteta zegoen. Anaiaren eta lagu-

nen laguntza izan nuen bizikleta aldaketak egiteko. Horri eta eten-gabe eman zizkidaten erreferentzietan eskerrak helmugara aurrena heltzea lortu nuen. Euskadiko Txapelketa irabaztea oso pozgarria izan da niretako".

BIHAR, ESPAINIAKO TXAPELKETAN

Euskadiko txapelduna izanda, bihar, Asturiasko Sotondio herrian jokatu den Espainiako Txapelketan hartuko du parte Jonek. Emakumeen lasterketa 16:30ean izango da. Elgetarrekin batera, Nekane Lasa, Erkunden Almagro, Maitane Telletxea, Ziortza Jauregi eta Naia Alzota ere izango dira han. Asturias aldean iaiz egindako hamargarren postua hobetzen ahaleginduko da Jone.

ASTELEHENEAN, GOITB-N IZANGO DA

Espainiako Txapelketatik bueltan, han bizi izandakoen gainean jardungo du Jonek GOITBko *Harmailatik* saioan. Astelehenean izango da, 20:15ean.



Joneren helburua da Espainiako Txapelketan hamar aurrenekoen artean egotea.




Herriko pilotarixek frontoia bete zeben Gabonetan

Gabonetako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziran abenduaren 31n. Giro aparta izan zan frontoian, umien finalak ikustera jende ugari batu zan-eta. Aitor Gorostizak, Nagore Moralesek, Iñaki Olaortuak, Odei Zenitagoiak eta Andoni Elortzak irabazi zittuen finalak./O.E.

GOITB

Alkatea zuzenean GOITBko 'Herrilan' programan

Eguaztenian, urtarrillak 15, GOITBko *Herrilan* programan izango da Patxi Basauri alkatea. 20:30ian hasiko da. Galderak egitteko, 943 71 23 93 telefonora deitu zeinkie.



BOLATOKI

Taberna
Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak
Karta enkarguz
Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Orfeoiko
Otxotea
Eibarren garaile

Oraingo asteko erretratua 1946. urtekoa duzue. Erretratuan Orfeoiko Otxoteko kideak agertzen dira. Urte hartako San Juanetan Kantu Lehiaketa izan zen Eibarko Astelena pilotalekuan, eta zortzi talde aritu ziren lehian. Jesus Berroiak emandako informazioaren arabera, taldeek ez zuten lan erraza izan, besteak beste, Jose Maria González Bastidaren *Dios te salve* lana abestu beharra izan zuten-eta. Parte hartu zuten zortzi taldeetatik sei erretiratu egin ziren. Azkenean, Bergarako Orfeoiko Otxoteak irabazi zuen lehen saria eta Errenteriako Otxotea geratu zen bigarren tokian.

Honako hauek agertzen dira erretratuan, ezkerretik eskumara: Donato Gallastegi (lehen tenorea), Juan Amilibia (lehen tenorea), Jesus Berroia (zuzendaria eta bigarren tenorea), Eulogio Zabaleta *Tita* (bigarren tenorea), Bittor Gallastegi (baritonoa), Marcial Garitano *Txara* (baritonoa), Felix Aranburu (baxua) eta Antonio Peña (baxua).



Esan bezala, bergararrek maila bikaina azaldu zuten lehiaketan. Epai-mahaian Jose Mari González Bastida, Juanito Gisasola, Francisco Escudero eta Bittor Zubizarreta izan ziren.

Argazkia: Jesús Berroia.

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

BERGARA

Aste Santuko
prozesioa

Garai baten Bergaran Aste Santuan egiten zen prozesioeko argazkia duzue ezkerrekoa. Argazkia 1920ko hamarkadaren inguruan ateratakoa da, Zubietan. Antza denez, prozesioa San Pedroko parrokiatik irteten zen Egubakoitz Santuan. Besteak beste, Andre Maria Doloretakoaren irudia ateratzen zuten, eta herritar ugari batzen zen herriko kaleetan prozesioa gertutik ikusteko.



≈ 1925

Aste Santuko prozesioa Zubietako zubitik pasatzen. Alboan, guardia zibilak eta domingotarrak (BUA, Alfonso Gallastegi bilduma).



2002

Zubieta kalea gaur egun. Ezkerreko argazkia era zutenetik dezente aldatu da. Besteak beste, zubi ondoko etxea bota zuten duela urte batzuk.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



HARMAILATIK...


Kirola bizi izateko!

Astelehenero,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Julen Iriondo



**Ikusiko
duzu!**



GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

